2015-VI-16
Número **464.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Jendearen alde

Azkenengo txanpara hurbiltzen ari da Herritar Ekimen Legegilearen ibilbidea Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean. Ibilbidea luzea izan da, malkartsua eta oztopoz beterikoa. Zailena beharko lukeena, –alegia, herritarren babesa jasotzea behin azalpenak emanda–, horren beharra azaltzea eta abar, ia errazena bilakatu da militante askoren lan itzelari esker. Enpresaz enpresa, sektorez sektore, auzo eta kaleetan ekimenaren zergatia azaldu, gizarteratu eta justiziazko eskakizuna dela aldarrikatuz, 110.000 herritarron babesa eta sinadura biltzea lortu genuen.

Hain bidezkoa eta justiziazkoa den eskakizuna administrazio publikoetako azpikontratetako langileon lan baldintzen egoera duintzeko bideratua dago, bertan emakumezkoen presentzia oso nabaria delarik. Herritarren babesa jaso bai, baina beste zenbait hori eragozten gogorki saiatu dira, administrazioetan duten kontrola baliatuz. Halaxe gertatu zen Bizkaiko Foru Aldundiak, EAJren eskutik, tramitazioa eten nahi izan zuenean *eskuduntza auzia* planteatuz. Funtsean auzia ez zen nori zegokion gaia arautzea, baizik eta guk bideratutako ekimena zapuztea. Gauzak oker joan zitzaien gaiari buruzko ebazpenak Legebiltzarrean aurrera joan zitekeela ebatzi zuenean, berea baitzen eskuduntza eta.

Etorri da testuari emendakinak egiteko garaia eta lehenagoko lepotik burua. Ekimen Legegilearen testua hobetu eta txukundu beharrean EAJ eta UPDren emendakinak berau desitxuratzeko burutuak daude, gutxieneko bermeak ezerezean gera daitezen. PPk emendakinak aurkeztu ere ez ditu egin. Bestalde, EH Bilduk eta PSEk eginiko emendakinak ontzat eman behar ditugu, finean testua aberastea planteatzen baitute.

Erantzukizunaz hainbeste hitz egiten den garai hauetan, argi esan behar digu EAJk, gehiengoa duen alderdia izanik, langile jendearentzat berebiziko garrantzia duen gaiari erantzukizunez helduko dion edo beste aldera begiratuko duen. Gobernuak berak eta horri eusten dion alderdiak enplegu duina eta bermeekin ziurtatzeko esandako guztiak betetzeko oraintxe du aukera. Hitzak bai baina ekimenak neurtuko ditugu. Jendearen eskubideen alde edo ez?

**Lankidetu!**

### Militantes de ELA piden en Gasteiz al Parlamento Vasco que apruebe la ILP presentada por nuestro sindicato

# "EXIGIMOS UN FRENO A LA EXPLOTACIÓN"

ELA protagonizó el viernes 12 de junio en Gasteiz una movilización en apoyo de la Iniciativa Legislativa Popular (109.396 firmas) presentada en el Parlamento Vasco en favor de los derechos laborales del personal subcontratado por las administraciones públicas. La iniciativa pretende que se aplique el convenio, garantizar la subrogación laboral para que el empleo sea estable y que se sancione a las empresas que no respeten las condiciones laborales y salariales pactadas.

En total un millar de militantes de ELA recorrieron en ruidosa manifestación el centro de Gasteiz –desde la Virgen Blanca hasta las inmediaciones del Parlamento– con una pancarta que rezaba *Parlamentuen erabakiak, langileon alde. Esplotazioarik ez. Las decisiones del Parlamento, en favor de los trabajadores/as. No a la explotación*. Una vez allí, tomaron la palabra el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz y Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, que hizo un recorrido de la trayectoria de la ILP como si de un partido de fútbol se tratara. El acto concluyó con una sonora pitada a lo partidos que están impidiendo que esta iniciativa salga adelante –PNV, PP y UPyD–, y, así mismo, se les sacó una tarjeta roja por su comportamiento.




### PASAR DE LAS PALABRAS A LOS HECHOS

El secretario general de ELA recordó a los presentes que la ILP ha contado con el respaldo de 110.000 firmas y que en dos ocasiones el sindicato ha explicado al Consejero de Empleo Angel Toña el motivo de esta iniciativa. "Tiene, ahora, la oportunidad de demostrar con hechos que lo que dice en los medios de comunicación es verdad. Vista las posiciones del Gobierno tenemos razones para ser escépticos. La política no son solo palabras; sobre todo son actos. Y ELA, con hechos, exige actos favorables a los y las trabajadoras; actos favorables a la dignidad en el empleo; más, si cabe, cuando la Administración Pública es el empleador". En este sentido, Muñoz mencionó subcontratas de las administraciones públicas –como Musikene o el servicio de ambulancias– donde se incumple el convenio y se dan condiciones de explotación con los parabienes públicos.

Muñoz insistió en que las pretensiones de la ILP son básicas y que sólo molestan a aquellas empresas que han decidido que el nuevo empleo sea miserable. Posteriormente, se preguntó por qué hay ciertos partidos que están torpedeando esta iniciativa, y explicó que estos viven fuera de la realidad. "¿Hay algo más? ¿Hay algo más que explique la connivencia con las empresas? ¿Hay financiación de partidos? ¿Hay reparto de subcontratas, estas son mías y estas tuyas? Hacemos estas preguntas en voz alta para intentar encontrar explicación a este bloqueo".

*(Sigue en la página 2)*

### Ekainaren 11n 'Alternatiben Herria' ekimena aurkeztu zen Bilbon

# ALTERNATIBAK DITUGULA ERAKUTSIKO DUGU

Ekainaren 11n Alternatiben Herria ekimena aurkeztu zen Bilboko Areatzan. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak proposatutako ekimen honek eragile ugariren babesa jaso du. Eta elkarlan horrek eman du bere uzta: urriaren 24an egun osoz Bilboko erdigunea hartuko duen Alternatiben Herria. ELAk gogotik txalotu nahi du ekimen hau, eta sindikatuak ahalegin berezia egingo du urriaren 24ko hitzordua arrakastatsua izan dadin.




Ekimen honen kide Joseba Martin eta Ainhara Plazaolak aurkezpen ekitaldian azpimarratu zutenez, "alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Eta Alternatiben Herria ekimena prestatzen ari garen eragileok baditugu alternatibak egungo eredu kapitalistaren aurrean. Hau horrela dela erakusteko hitzordua ere jarri dugu: urriak 24, larunbata, Bilbon".

*(2. orrialdean jarraitzen du)*




En este dar la espalda del Gobierno vasco a los trabajadores/as, el secretario general de ELA se refirió a la presencia del lehendakari Iñigo Urkullu en la Asamblea General de la patronal guipuzcoana Adegi celebrada la semana pasada y las manifestaciones en las que hacía suyo el modelo de relaciones laborales de la patronal "más reaccionaria del Estado".

"Adegi defiende un *nuevo modelo de empresa* sin sindicatos. No quiere nada organizado que limite su unilateralidad. Quiere empresas donde entre el empresario con todo su poder y el trabajador o trabajadora individual no exista nada colectivo que nos defienda. El Gobierno vasco apoya a una patronal que ha llegado a decir que *'el único contrato basura que existe es el que tiene una persona que está en el paro'*".

El secretario general de ELA finalizó su intervención afirmando que si en la Administración no se incorporan límites a la explotación el mensaje que enviará el Gobierno al sector privado es que apoya un mundo laboral en el que rija la ley de la selva. "Por eso, exigimos al Parlamento Vasco que haga uso de todas sus competencias para impedir la precariedad y explotación laboral".

## SEGUIR EN LA PELEA

El responsable de negociación colectiva de ELA, Joseba Villarreal, tras explicar la trayectoria vital de la ILP en la CAPV, aseguró que a lo largo del proceso ha quedado claro que no existe problema jurídico alguno para que pueda aprobarse la ILP. "Se trata, pues, de voluntad política", dijo.

En este sentido, continuó afirmando que "este Parlamento tiene la oportunidad histórica de pasar de las palabras a los hechos, de decir que no les gusta la precariedad a decidir que la van a combatir, de tomar decisiones que estabilicen el empleo de miles de mujeres y hombres; en definitiva, de pasar a una nueva fase en relación a la subcontratación".

Tras afirmar que hoy la pelota está en manos del PNV y PSE, Villarreal adelantó que "vamos a reunirnos con todos los grupos para tratar de lograr un acuerdo. Acuerdo que es posible si hay voluntad política".

## CRONOLOGÍA DE LA ILP IMPULSADA POR ELA Y APOYADA POR 109.386 FIRMAS

- 29 de octubre del 2013: se admite a trámite la Iniciativa Legislativa Popular presentada por ELA para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública.

- Se inicia la recogida de firmas en los centros de trabajo. El 3 de abril se entregan cerca de 110.000 firmas en el Parlamento Vasco.

- El Gobierno vasco presenta un informe negativo, solicitando al Parlamento que no tramite la ILP.

- A pesar de ese informe, en el pleno celebrado el 26 de junio se acuerda tomar en consideración la Proposición de Ley y seguir adelante con el tramite parlamentario habitual. La aprobación se da con los votos a favor del EH Bildu, PSE-EE y UPyD, y con las abstenciones de PNV y PP:




- Estando el proceso en la fase de enmiendas, sufrimos el segundo intento de paralización.

- 17 de septiembre del 2014: nos enteramos por los medios de comunicación que la Diputación Foral de Bizkaia había presentado una cuestión de competencia ante la Comisión Arbitral.

- Días después ELA tiene acceso a la solicitud realizada por la Diputación.

- El proceso queda suspendido hasta que la Comisión Arbitral tome la decisión oportuna. Por lo tanto, la Diputación Foral de Bizkaia consigue lo que pretendía: dejar fuera de juego el tema de la ILP, porque no le interesaba al PNV.

- Después de varios meses, la Comisión Arbitral desestima la solicitud de la Diputación Foral de Bizkaia: es decir, dice que no tiene razón y que el Parlamento Vasco es perfectamente competente para adoptar este tipo de acuerdos.

- Una vez despejada esta duda, el proceso vuelve a la fase de enmiendas. Tras varias solicitudes de prórroga se presentan enmiendas por parte de todos los grupos parlamentarios, salvo el PP.

- Analizadas las enmiendas podemos decir que con las presentadas por el PSE y EH Bildu se puede seguir adelante, mientras que las enmiendas planteadas por UPyD y PNV impiden de manera clara que se apruebe una ILP con las características de la nuestra: subrogación, convenio de aplicación, precio de licitación y sanciones por incumplimiento.

- Así pues, nos falta un voto para poder aprobar una ILP que ponga solución a una gran parte de los problemas de las mujeres y hombres que trabajan en las subcontratas públicas.

Helburu horrekin egitarau oparoa prestatzen dute antolatzaileek. "Bilboko erdigunea, herri txiki bat bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko dugu horretarako. Bilbon zehar egongo diren gune bakoitzean arlo ezberdinetan ditugun alternatibak ezagutzeko aukera egongo da jarduera ezberdinen bitartez: hitzaldiak, mahai inguruak, azokak, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak… Baina, aldarrikapen eguna izateaz gain, ospakizun eguna ere izango da urriaren 24an. Horregatik, ez dira faltako kale animazioa, jan-edanerako guneak, musika…".

Martinek eta Plazaolak aurkezpenean nabarmendu zutenez, "eraldaketaren bidean denon lana behar-beharrezkoa da. Horregatik elkarlanerako deia egiten diegu ekimen honetan parte hartu nahi duten lagun eta eragile guztiei. Alternatiben Herria Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak planteatu zuen erronka da. Gauzak honela, azken hilabete luze hauetan eragile ezberdinek egindako elkarlan honek eman duen emaitza da Alternatiben Herria. Dagoeneko definitu dira egongo diren gune ezberdinetako eduki nagusiak –natura; ekonomia eredua; demokrazia, soberania eta parte hartzea; bizitzaren iraunkortasuna; aniztasuna; eta ondore komuna–. Orain erronka guztion artean gune horiek ahalik eta gehien indartzea da".

Hau guztia dela eta, Alternatiben Herria ekimeneko kideek mezu zuzena bidali nahi izan zioten Euskal Herrian bestelako eredu sozial eta ekonomiko bat posible dela sinetsita lanean ari diren guztiei: "Urriaren 24an ezinbesteko hitzordua dugu Bilbon. Eraldaketaren bidean denon lana ezinbestekoa da, bai Alternatiben Herria ekimena garatzeko eta bai alternatiban eraikitzen jarraitzeko. Guztion artean lortuko dugu!".




*La iniciativa 'Alternatiben Herria-El Pueblo de las Alternativas' tiene como objetivo demostrar que existen alternativas al actual sistema capitalista. La cita es el próximo sábado 24 de octubre en Bilbao.*

## Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak 'Euskal zerga sistema: diagnostikoa eta alternatibak' formazio ikastaroa antolatu du ekainaren 18 eta 19rako, UNED-Bergararekin elkarlanean

# ZERGA SISTEMA AZTERGAI




*Euskal zerga sistema: diagnostikoa eta alternatibak*. Hori izango da aurten beste behin Manu Robles-Arangiz Fundazioak eta UNED-Bergarak elkarlanean ekainaren 18 eta 19rako antolatu duten udako mintegiaren gaia. Azken urteetan bezala aurten ere hitzordua Euskal Herriko Unibertsitateak Ibaetan duen campuseko Ignacio Maria Barriola eraikinean izango da, bi egunetan goizeko 09:30tatik aurrera.

Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuko arduradun Unai Oñederrak azpimarratzen duenez, goi-mailako adituak bilduko dira horren garrantzitsua den gai honen inguruan eztabaidatzeko. "Oso pozik gaude prestatu dugun egitarauarekin. Ekainaren 18an lehendabizi **Ignacio Zubiri** eta **Lourdes Serna** ariko dira. Zubirik euskal zerga sistemaren egoera aztertuko du; Sernak, berriz, zeharkako zergak eta zerga iruzurraren kontrako ekintza proposamenak izango ditu hizpide. Ondoren eztabaidarako tartea izango dugu. Atsedenaren ostean **Carlos Sanchez Mato** ekonomista izango dugu gurekin. Matok honako hitzaldia eskainiko du: *Zerga paradisuak: errealitatea, ondorioak eta beraiekin amaitzeko neurriak*".

"Ekainaren 19an ere egitaraua primerakoa izango da. Hiru hizlari egongo dira goizean zehar: **Mercedes Vallejo**k zerga sistema justu bat eratzeko gakoak eskainiko ditu; **Mikel Aranburu**k Nafarroako Ogasunaren konpetentzia-markoa eta antolaketa aztertuko ditu; azkenik **Maria Pazos**ek zerga politika eta gizarte eredua ikuspegi feministatik aztertuko ditu. Jardunaldiei amaiera emateko gizarte politiken arduradunak –**Mikel Noval**– eta ELAko idazkari nagusiak –**Adolfo Muñoz**– gai honen inguruan gure proposamenak eta egiten dugun irakurketa azalduko dute".

### FISKALITATEA, EUSKAL ERAKUNDEEN ESKUMEN NAGUSIA

Unai Oñederrak azpimarratzen duenez, fiskalitateak berebiziko garrantzia du gizarte eredua ulertzeko orduan. "Zalantzarik gabe fiskalitatea da euskal erakundeek duten eskumen nagusia. Hala ere, zerga sistemak herritar guztioi eragiten digun arren, gai honi buruzko erabakiak hartzerakoan eztabaida eta parte hartze soziala ukatu digute. Eta guri hau onartezina iruditzen zaigu. Zergen eta ongizate-estatuaren arteko lotura oso estua da. Horregatik ezin dugu onartu gai hau elite politiko eta ekonomikoek bahituta izatea".

Maiatzaren 24an udal eta foru hauteskundeak egin ziren Hego Euskal Herrian. "Aurki Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako gobernu foralak eratu beharko dira. Jakina da horiek dutela zerga sistemaren inguruko eskumena; beraz, aurki erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzte. ELAren mezua jakina da, baina ez gara nekatuko errepikatzeaz: zerga-sistema hau goitik behera aldatu beharra dago. Egungo sistema errenta altuen, kapitalaren eta enpresen mesedetan pentsatuta dago. Biltzen den diru kopurua nola biltzen den ikusi besterik ez dago, diru gehien langile errentei eta BEZa moduko zerga bidegabeei esker biltzen baita. Eta, bien bitartean, zerga iruzurrari aurre egiteko behar bezalako eta behar adinako neurriak hartu gabe jarraitzen da".

*La Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua ha organizado –en colaboración con UNED-Bergara– un seminario para los días 18 y 19 de junio en Donostia. Con el lema 'Sistema fiscal vasco: diagnóstico y alternativas' prestigiosos ponentes analizarán este tema tan importante, sin duda la principal competencia que tienen las instituciones vascas y una de las claves para lograr una sociedad más justa e igualitaria. El seminario será en el edificio Ignacio Maria Barriola, dentro del campus que la UPV tiene en Ibaeta, Donostia.*

# HACIENDA SOMOS TODAS Y TODOS



El Fiscal Superior del País Vasco ha archivado las diligencias abiertas tras la denuncia persentada por ELA para que se investigase la actuación de las Haciendas Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, que tardaron 8 años en cumplir la sentencia que les obligaba en 2006 a recuperar las denominadas vacaciones fiscales. Como su nombre indica, las vacaciones fiscales eran un régimen fiscal muy favorable aplicado a determinadas empresas, a las que se eximía de pagar impuestos. O sea, un regalo a las empresas.

El Fiscal ha dado por acreditado que "es incuestionable que se produjo un incumplimiento de una sentencia del Tribunal de Justicia, lo que ha conllevado una multa de 30 millones de euros, que ya ha sido pagada". Según la Fiscalía, "los responsables de las haciendas de los tres territorios obraron incorrectamente tras ser requeridas para el cumplimiento íntegro de la sentencia.., lo que al final ha sido pagado por la Hacienda, es decir, por el dinero común de los ciudadanos..."

La Fiscalía ha archivado las diligencias cuando estaba a punto de cumplirse un año desde que ELA presentó la denuncia. La aceptó a trámite, y solicitó informes a las Diputaciones, al Gobierno Vasco y a la patronal. Estos informes, solicitados a las partes denunciadas, trataban de justificar que las haciendas habían actuado correctamente. Es de suponer que nadie esperaba una autoinculpación de las propias haciendas o un reconocimiento de Confebask de que, como declaró en su día el Diputado de Hacienda de Bizkaia, las Diputaciones "habían hecho lo que les pidió Confebask" (es decir, no solicitar la devolución del dinero ahorrado por las empresas).

La cuestión de fondo es que por beneficiar a las empresas hemos tenido que pagar 30 millones de multa entre quienes contribuimos a Hacienda (es decir, sobre todo hemos pagado los trabajadores y trabajadoras). Es inaceptable que nadie haya asumido ninguna responsabilidad política. Y también es inaceptable que una actuación de este tipo (yo la lío y no pasa nada, que hacienda somos todas y todos), se salde sin responsabilidad de ningún tipo. Es una muestra evidente de cómo el sistema protege a quienes llegan incluso a incumplir la ley para ponerse al servicio de la patronal.

El archivo de las diligencias se basa en que no era tan fácil recuperar las ayudas, que era una cuestión compleja. Es imposible creer que las haciendas incumplieron su obligación de recuperar el dinero sin saber que cometían una infracción. El propio Fiscal lo reconoce implícitamente, al señalar que cuando en 2013 el Tribunal Europeo estableció que se iba a imponer una multa cuya cuantía aumentaba día a día si no se recuperaba ese dinero, las haciendas se pusieron manos a la obra, y en unos pocos meses sí pudieron conseguir que las empresas devolviesen ese dinero. Lo que era imposible se hizo posible por arte de magia.

Pero el tema no va terminar con este archivo. Al final las empresas han tenido que devolver el dinero, con importantes intereses, lo que les ha llevado en varios casos a interponer demandas ante las haciendas. Está por ver el resultado final de las mismas. Habría estado bien que el Fiscal, sin duda conocedor de estas demandas, hubiese llamado a declarar a los responsables de las empresas para conocer si las Diputaciones les habían solicitado la devolución en su día, si les habían dicho que estuviesen tranquilos. Na vaya a ser que hubiese habido quienes querían devolver el dinero y se hubiesen encontrado con la ventanilla de hacienda cerrada para ese ingreso.

***Mikel Noval, responsable de política social***

## LABURREAN / BREVES




### • German Kortabarriaren 'Gauzak horrela (ere) izan ziren' liburuaren aurkezpena

Ekainaren 10ean German Kortabarriaren –argazkian, erdian– *Gauzak horrela (ere) izan ziren* liburua aurkeztu zen Donostian. Kortabarria urte luzez ELAko zuzendaritzaren kide izan zen, 2007. urtean zituen ardurak utzi zituen arte. Liburuan 1976tik 2006ra bitartean doan tartearen errelatoa egiten du Kortabarriak, betiere –egileak aitortzen duen bezala– bere betaurrekoen araberakoa.

"Norbaitek galdetuko balit ea nolakoak izan diren ELAren azken hamarraldietako kontuak, liburuan jaso ditudan bezala kontatuko nizkioke. Liburukoa neure kontaera dela diot: subjektiboa eta partziala, beraz. Partziala hitzaren beste adieran ere: ELAren ikuspegitik kontatutakoa da, neure betaurrekoek araberatutako ELAren ikuspegitik, jakina. Liburuaren izena nire egiaz ari da. Nik, neurea azaldu dut, ahalik eta zintzoen". Plazerra izango da irakurtzea, German.

### • ELAk dei egiten du ekainaren 21erako Gure Esku Dago ekimenak antolatu dituen ekitaldietan parte hartzera

Gure Esku Dago herri dinamikak hainbat ekitaldi antolatu ditu ekainaren 21erako Baionan, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean. ELAk bere babesa erakutsi nahi die egun horretan erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatu eta eskubide hori egikaritzeko dugun borondatea azaldu asmoz Gure Esku Dagok antolatu dituen ekitaldiei. Horregatik, ELAk dei egiten dio bere militantziari eta sindikatuko afiliazio guztiari ekainaren 21eko ekitaldietan parte hartzera.

### • Aplazada la votación prevista en el Parlamento Europeo sobre el TTIP

El miércoles 10 de junio se aplazó en el Parlamento Europeo una votación prevista en torno al TTIP, tratado de libre comercio que están negociando en secreto la Unión Europea y los Estados Unidos de América. En opinión de Laura González de Txabarri, responsable del área de internacional de ELA, este aplazamiento es consecuencia de las presiones de diferentes lobbys que trabajan en favor del TTIP.

"Es evidente que se trata de una maniobra de los grupos pro-TTIP –conservadores, liberales y socialdemócrátas– para ganar tiempo, pues no estaban seguros de poder ganar la votación que se iba a celebrar ese día. Tenían miedo al resultado de la votación que iba a celebrarse, y para ello han buscado un pretexto totalmente injustificado, como es el número de enmiendas presentadas, 116".

En opinión de Laura González de Txabarri lo sucedido tiene que marcar el camino a seguir en la lucha contra este tratado. "Hay que hablar claro: si han aplazado la votación es porque tenían miedo que algunos de los puntos centrales del TTIP como el ISDS –mecanismo privado de resolución de conflictos entre inversores y estados– pudieran ser rechazados. Y si esos puntos centrales podían ser rechazados es como consecuencia de la presión social que hemos ejercido las organizaciones y campañas contrarias al TTIP. Evidentemente habrá una nueva fecha para la votación, pero la presión social seguirá creciendo".

"Si no se hubiera dado la movilización social de los últimos meses –concluye–, los partidarios del TTIP tendrían el camino libre. Este retraso es resultado de la movilización, y nos anima a seguir presionando hasta parar definitivamente este proyecto".

# ELA LOGRA SU TECHO HISTÓRICO Y SE CONSOLIDA COMO SEGUNDO SINDICATO EN LA ADMINISTRACIÓN FORAL DE NAVARRA




*En la imagen algunos de las y los delegados de ELA en la administración pública de Navarra*

La semana pasada se celebraron las elecciones sindicales tanto en la Policía Foral como en el Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra. Imanol Pascual, coordinador de ELA en Navarra, recuerda que las elecciones en ambos sectores de la administración foral se realizaron el 12 de junio como consecuencia de una decisión arbitral que tenía como objetivo dar tiempo a Afapna y CCOO a que rehicieran sus candidaturas, anuladas en su día por la dimisión de varios de sus candidatos.

"A diferencia del resto de la administración pública de Navarra, que votó el 20 de mayo, estas dos votaciones fueron aplazadas arbitrariamente. Afortunadamente, ni siquiera de esta forma han conseguido evitar el salto adelante de ELA en la Administración Foral de Navarra".

Una vez elegidos las y los representantes sindicales de todos los sectores de la administración pública, Imanol Pascual se muestra muy contento con los resultados obtenidos. "ELA se ha colocado como segundo sindicato entre el personal de la Administración Foral, al obtener 44 delegados en los 16 ámbitos votados en 2015. Además de subir en delegados/as –tenemos 6 más–, hemos subido tanto en votos como en porcentajes".

El coordinador de ELA en Navarra también destaca la amplia implantación de nuestro sindicato en toda la administración. "Antes de las elecciones destacábamos que ELA era el único sindicato que se presentaba en todos los sectores. Pues bien, hemos logrado ser el sindicato presente en más ámbitos (15 de 16), a falta únicamente de haber logrado delegado en Hacienda Laborales. Ningún otro sindicato ha alcanzado esa extensión ni esa presencia homogénea en toda la Administración".

"El éxito de ELA –añade– no se explica por un momento político determinado, sino por el trabajo sindical, centro a centro, realizado durante estos últimos años y por el proyecto reivindicativo y de cambio profundo en la Administración que se propone para el futuro".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

**Franqueo concertado nº 08/207**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus